

San Telmo Museoko arte esku-hartze programa bat da Museo Bikoitza. Urtero, bildumaren eta errelato museografikoaren berrirakurketak eskaintzeko gonbidapen bat jasotzen du artista batek.

Lanaren emaitza erakusketa programaren zati izango da urtebetez, azkenik museoaren arte bilduman sartua izateko, une bakoitza San Telmo Museoaren ondarrera eta bildumaren errelatora gaineratzeko premia adieraziz, baina premia hori ordeztu gabe, betiere.

Jose Mari Zabala da edizio honetako gonbidatua, aurrekoan parte hartu zuen Erlea Maneros Zabalaen lekukoa hartuz. Asier Mendizabalen proposamen batetik abiatuta hedatzen du ondoz ondoko gonbidapenen bere logika Museo Bikoitza programak.

Museo Bikoitza/Museo Doble es un programa de intervenciones artísticas en el Museo San Telmo. Con periodicidad anual, un/a artista recibe la invitación a propiciar relecturas de la colección y del relato museográfico.

El resultado de este trabajo formará parte del programa expositivo durante un año para finalmente añadirse a la colección de arte del museo, señalando, aunque no supliendo, la necesidad de incorporar cada momento presente al patrimonio y al relato de la colección de San Telmo.

El invitado de esta edición es Jose Mari Zabala, que tomó el testigo de Erlea Maneros Zabala, quien participo en la segunda edición. El programa Museo Bikoitza despliega su lógica de invitaciones sucesivas a partir de una propuesta de Asier Mendizabal.

Jose Mari Zabala

50 urtetik gorako jardueraren emaitza izanik, Euskal Herriko eguneroko berehalakoaren interpelazio kritikoa du ardatz Jose Mari Zabalaen (1949) lanak, kontsumoko eta zabalkunde masiboko teknologiaren bitarteko arruntak —bideoa, soinua, argazkia, zinema, marrazkia, grafismoa— baliatuta, prestigiorik gabeko euskarrietako herri-generikoaren aldeko lehentasunekin. Alderdi gizatiar funtsezkoaren inguruan dago bere interesa, egunerokotzat, arruntzat, garrantzirik gabekotzat, hutsaltzat jotzen denari arreta emanez, marjinaltasunaren mugetatik begiratuta sarritan, alderdi paradoxiko-disruptorearekin estu lotutako praxi operazionalak garatuz. Bere lanak dibertsitate tematiko eta kontestual handikoak dira, eta sarritan kontraesan handia gertatzen da, jendeak ez baitaki artelan zabalduenen egilea bera denik. Une historiko konkretu batekin lotuta pentsatutako obra dugu, kontrapuntu gisa, eta eredu alternatibo oso askotarikoak proposatzea du helburutzat, hurbilketa tematiko, metodologiko eta operatiboko ereduak, neurriara egindakoak.

Jose Mari Zabala

Resultado de más de 50 años de actividad, la obra de Jose Mari Zabala (1949) se centra en la interpelación crítica del inmediato cotidiano en el País Vasco, recurriendo a los medios ordinarios de la tecnología de consumo y difusión masiva —vídeo, sonido, fotografía, cine, dibujo, grafismo—, con preferencias por lo genérico popular en soportes sin prestigio. Su interés gira en torno a lo humano esencial, prestando atención a lo que se conoce como cotidiano, ordinario, intrascendente, banal, a menudo desde las lindes de la marginalidad, desarrollando praxis operacionales estrechamente vinculadas con lo paradójico-disruptor. Sus trabajos son de una gran diversidad temática y contextual, dándose a menudo el contrasentido de que de los más difundidos sea desconocida su autoría. Es una obra concebida en relación directa con el momento histórico concreto, a modo de contrapunto, y se caracteriza por proponer modelos alternativos muy diversos, a medida, de aproximación temática, metodológica y operativa.

San Telmo Museoa
2021-06-16 // 2022-06-19

Asteartetik igandera
De martes a domingo
10:00 - 20:00

Astelehenetan itxita, jaiegunetan zabalik.
Lunes cerrado, festivos abierto.

SAN TELMO MUSEOA
Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia / San Sebastián
www.santelmomuseoa.eus
@santelmomuseoa


ANTOLATZAILEA / ORGANIZA:



ERAKUNDE BABESLEAK / SOCIOS INSTITUCIONALES:



STM
San Telmo Museoa



Museo Bikoitza 2021-07-01 -- 2022-06-19

Magia, materia eta beharra

Zeinu dezifraezin bat gara.
(...)
Lur arrotzean,
mintzamina galdu genuen ia.

Friedrich Hölderlin

Magia eta artea, bata zein bestea, onura bat lortzeko helburuarekin jarduteko gaitasun espezifikoarekin daude lotuta, kausaren eta ondorioaren nahitaezko kateamendu batean. Horixe da terminoen jatorrizko esanahia –hemen interesatzen zaigun gauza bakarra, hain zuzen ere–, eta balioan jartzen du materia premiaren arabera eraldatzeko miraria dela proiektu honen helburua nagusia.

Magia eta materia, Friedrich Hölderlin, 1798.

Azaleko begirada batetik kontrakoa eman badezake ere, lehenik eta behin komeni da argitzea ordena materiala eta espirituala ez direla batak bestea baztertzen duen dikotomia bat, baizik eta guztiz kontrakoa, milaka urtetan gizakiak imajinatu eta produzitu duen guztia –eta bere existentzia osoan hari heldu behar diona– baita bere espirituaren produkturik aipagarriena, hain zuzen ere, eta horixe da, mintzamenarekin batera, gainerako izaki bizidunekiko duen bereizgarri nagusia.

Magia eta materia, Friedrich Hölderlin, 1798.

Hiru milioi urte ditu orain arte aurkitutako hominidoek egindako lanabes zaharrenak. Oinarrizko harrizko aizkora bati beste lanabes batzuk –karrakailuak, lantza-puntak eta gezi-puntak, amuak eta harpoiak— gehitu zitzaizkion, lehenik harrizkoak, eta ondoren animalien adar eta hezurrezkoak; berrikuntza horiek ez ziren erraz eta berez lortu, eta, aitzitik, milaka urtetako metatutako jardueran zehar gaineratzen joan ziren.

Magia eta materia, Friedrich Hölderlin, 1798.

Bere janaria lortzeko eta jantziak egiteko zitzaizkion baliagarriak gizakiari lanabes horiek, eta erabilerarekin soilik lotutako erremintak izan ziren hasieran. Haatik, une jakin batetik aurrera ornamentaziokotzat soilik kalifikatu ahalko genituzkeen detaile osagarriak hasten dira agertzen, eta halaxe kalifikatuko genituzke objektu horiek

Magia eta materia, Friedrich Hölderlin, 1798.

Magia eta materia, Friedrich Hölderlin, 1798.

egiteko zailtasunagatik ez balitz, garatutako behaketa-dohainak eskatzeaz gain, dedikazio arduratsuko denbora asko eskatzen baitute, eta baldintza horiek iradokitzen digute orduan ez zirela bigarren mailako gai bat.

Magia eta materia, Friedrich Hölderlin, 1798.

lldo horretan urrunago joanez, erabilgarritasunarekin lotu ezin diren objektu batzuk agertzen hasten dira, balio soil-soilik estetikoa izango luketenak, ezagunak zaizkigun kategorietatik definitu beharko bagenitu. Dekorazio-elementu gisa erabilitakoak izan daitezke gaur egun giza taldeak kontsumitutako itsas espezie baten maskorra edo oskola, baina enigma handitu egiten da espezie hori jangarria ez bada edo hurren-hurreneko ingurunekoa ez bada, baizik eta antzina-antzinako garai horietako distantziak kontuan izanda oso urrutiko itsaso batetik ekarri badute, objektuaren itxurazko balio bakarrak haren forma eta kolorea izanik, haren trinkotasun material bereziarekin batera.

Magia eta materia, Friedrich Hölderlin, 1798.

Ezinezkoa da gaur egungo gizakiak soil-soilik erabilgarritasunarekin lotutakoa –bizirauteko ezinbestekoa dena– huts-hutsik ornamentaziozkoa denarekin parekatzeko premia mota berezi hori sentitzea. Ez da azalpen nahikoa hasierako objektu horiek –gorputz-apaingarriekin, kantuarekin eta dantzarekin batera– uneko kapritxo sinpleak izatea, noizbehinkako dibertimendu eta burutazioen ondorio izatea, hasierako garai haietan edozein arlotako mugarri bakoitzak milaka urtetako etenik gabeko esfortzua eskatu baitzuen.

Koadroa osatzeko, kasu honetan ere aplikagarria izango da bidaiaren alderdi garrantzitsuena helmuga baino ibilbidea bera dela jasotzen duen nozioa, ezen jatorri iluneko gizaki hori suharriekin saiatzen den bitartean, bere lorpen garrantzitsuena susmatu ere egiten ez duen zerbait baita: goragoko ordenako izaki bihurtzeko bere eraldaketa propioa.

Magia eta materia, Friedrich Hölderlin, 1798.

Bere burua sortu izana da gizakiaren lorpenik handiena.

Magia eta materia, Friedrich Hölderlin, 1798.

STMren bildumaren funts-proposamena oinarritzeko Museo Bikoitza proiektuaren

premisaren arabera, eta artearen kontzeptuaren zentzu propiora atxikita, «Magia, materia eta beharra» aukera bat da Gipuzkoako hurren-hurreneko lurralde- eta denbora-esparruetan produkzio materialaren munduari begirada bat emateko, produkzio hori agertu eta garatu izana mugatu duten bere ekimen ekintzailearen ezaugarri jakin batzuk bereziki azpimarratuta.

Magia eta materia, Friedrich Hölderlin, 1798.

Zerk eragiten duen ideia haztea eta gorpuztea, eta zer arrazoiri erantzuten dion familia-komunitatea bera sakon inplikatzea, enpresa bati belaunaldien arteko jarraitutasuna emanez, sarritan mozkinak berrinbertituz –eta horrek lehenik lan eta ardura gehiago esan nahi ditu– Pepe Mugicak esango lukeen bezala, dirutza pilatzearen aukera sinplearen alde egin beharrean, diru-jana eginda, gai zukutsuak dira gaizki ordaindutako eta zerbitzuen sektorean etorkizun eskasa duten lanpostuen turistifikatzearekin lotutako garaietan planteatzeko.

Magia eta materia, Friedrich Hölderlin, 1798.

Ez al dago Osaba Gilitorena eta Mafaldako Manolitorena ez den beste onura-aukerarik?, horren arranditsuki goretsitako patologia diruzale horren adierazgarrik alaienak aipatzeagatik...

Magia eta materia, Friedrich Hölderlin, 1798.

Burdindegi bat jostailu-denda oso handi bat dela jasotzen duen nozioarekin hazi den norbaitentzat, Patricio Echeverriak, David Olañetak, Calparsoro eta Amunarriztarrek edo Jose Ignacio Lopez de Arriortuak aurreratzaile berezi horrek lagin labur gisa irudikatzen dute gaur egun garena egiten joan den mirariaren motorra (eta horri gehitu behar zaio, zorionez eta bete-betean elementuen aurka arituz, sagak baduela jarraipenik).

Magia eta materia, Friedrich Hölderlin, 1798.

Jose Mari Zabala

Magia eta materia, Friedrich Hölderlin, 1798.

Magia eta materia, Friedrich Hölderlin, 1798.

Magia, materia y necesidad

Somos un signo indescifrable.
(...)
En tierra extraña,
casi perdimos el habla.

Friedrich Hölderlin

Magia y arte, tanto monta, aluden a la capacidad

específica de obrar con la finalidad de obtener un beneficio, en una concatenación obligada de causa y efecto. Ese es el sentido original de los términos, que es el único que interesa aquí, y poner en valor el prodigio de transformar la materia en función de la necesidad es el propósito principal de este proyecto.

Magia y arte, tanto monta, aluden a la capacidad

En primer lugar conviene aclarar que, en contra de lo que podría parecer desde una mirada superficial, el orden material y el espiritual no constituyen una dicotomía recíprocamente excluyente, sino todo lo contrario, ya que todo lo que el ser humano viene imaginando y produciendo a lo largo de milenios, y a lo que permanentemente ha de recurrir durante toda su existencia, es precisamente el más notable producto de su espíritu, siendo, junto con el habla, su distintivo principal entre el resto de los seres vivos.

Magia y arte, tanto monta, aluden a la capacidad

Tres millones de años tiene el utensilio de factura homínida más antiguo encontrado hasta el momento. A lo que era un elemental hacha de piedra se le fueron sumando otros útiles — raspadores, puntas de lanza y flecha, anzuelos y arpones—, primero de piedra y luego de asta y hueso animal, innovaciones que no surgen de manera fluida y espontánea, sino que se van incorporando a lo largo de milenios de actividad acumulada.

Magia y arte, tanto monta, aluden a la capacidad

Estos útiles le sirven al ser humano para conseguir su alimento y elaborar su vestimenta, siendo inicialmente unas herramientas de carácter estrictamente utilitario. Sin embargo, a partir de un determinado momento empiezan a aparecer

detalles accesorios que podrían calificarse de meramente ornamentales, si no fuera por lo costosa de su confección, puesto que además de requerir desarrolladas dotes de observación, exigen mucho tiempo de concienzuda dedicación, condiciones que sugieren que no se trata de una cuestión secundaria.

Magia y arte, tanto monta, aluden a la capacidad

Yendo más lejos en este sentido, empiezan a aparecer también algunos objetos no reconocibles desde la utilidad, sino que podrían tener un valor puramente estético, si hubiera que definirlos desde categorías conocidas. Usados como elementos decorativos, pueden ser la concha o caparazón de una especie marina consumida habitualmente por el grupo humano, pero el enigma se acrecienta cuando la especie en cuestión ni es comestible y ni tampoco pertenece al entorno inmediato, sino que ha tenido que ser traída desde un mar muy lejano para lo que son las distancias en esos tiempos remotos, siendo sus únicos valores aparentes su forma y color, junto con su particular consistencia material.

Magia y arte, tanto monta, aluden a la capacidad

Es imposible para el ser humano actual sentir esa clase particular de necesidad que equipara lo estrictamente utilitario, imprescindible para subsistir, con lo que podría tomarse por puramente ornamental. No es suficiente explicación que estos primores, junto con el adorno corporal y el canto y la danza, fueran simples caprichos del momento, ocasionales expansiones, puesto que, en esos críticos tiempos inaugurales, cada hito en cualquier dominio requirió milenios de esfuerzo sin pausa.

Magia y arte, tanto monta, aluden a la capacidad

Para completar el cuadro, también en este caso va a ser aplicable esa noción de que lo más importante del viaje no es el destino, sino el propio trayecto, si se habla de lo que es vivir, ya que mientras que este ser de origen oscuro se afana con sus pedernales, su logro más relevante es algo de lo que no tiene ni idea: su propia transformación en un ser de orden superior.

Magia y arte, tanto monta, aluden a la capacidad

Haberse creado a sí mismo es el más grande logro del ser humano.

Según la premisa del proyecto Museo Bikoitza de fundamentar la propuesta en fondos de la colección del STM y ateniéndose al concepto de arte en su sentido propio, «Magia, materia y necesidad» supone una oportunidad para echar una mirada al mundo de la producción material en los ámbitos territoriales y temporales inmediatos de Gipuzkoa, con un énfasis particular en ciertas características peculiares de su iniciativa emprendedora que han venido determinando su aparición y desarrollo.

Magia y arte, tanto monta, aluden a la capacidad

Qué hace que una idea brote y cuaje y en qué razón reside que la propia comunidad familiar se llegue a involucrar a fondo dando continuidad generacional a la empresa, a menudo a costa de reinvertir beneficios —lo que en primera instancia significa más trabajo y más preocupaciones—, en lugar de decantarse por la simple opción de acumular plata, que diría Pepe Música, vía pelotazo, son jugosas cuestiones para plantearlas en tiempos turistificantes de puestos de trabajo mal retribuidos y de escaso porvenir en el sector servicios.

Magia y arte, tanto monta, aluden a la capacidad

¿Es acaso que no existen otras opciones de beneficio que las del Tío Gilito y Manolito el de Mafalda, por mencionar los exponentes más risueños de esta patología tan triunfalmente celebrada?

Magia y arte, tanto monta, aluden a la capacidad

Para alguien criado con la noción de que una ferretería es una juguetería muy grande, Patricio Echeverría, David Olañeta, los Calparsoro y Amunárriz o ese singular anticipador que es José Ignacio López de Arriortúa representan a modo de muestra escueta el motor del prodigio que ha ido haciendo de nosotros lo que somos (y también hay que añadir que, afortunadamente y a todo trapo contra los elementos, la saga tiene continuación).

Magia y arte, tanto monta, aluden a la capacidad

Jose Mari Zabala

Magia y arte, tanto monta, aluden a la capacidad

Magia y arte, tanto monta, aluden a la capacidad